

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA  
(16.01.28)**

INGURUMEN ZINEGOTZIA:  
JOSÉ LUIS LANDA jn.

INGURUMEN TEKNIKARIA:  
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:  
ARANTZA CABEZA and.

INGURUMEN AHOLKULARIAK:  
JULEN REKONDO jn.  
EUGENIA ATIN and.

PARTE HARTZAILEAK:

CARLOS ARANA jn. (Europak erakundeko ordezkaria).  
TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleak elkarteko ordezkaria)  
JAVIER GALÁN jn. (Getxo Enpresa elkartearen burua).  
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaitan ospe handia duen pertsona).  
TOMI ETXEANDÍA jn. (Eskola Agenda 21 eta San Nikolas Ikastetxeko irakaslea).  
JOSU INTXAURRAGA jn. (Itxartu Taldea).  
CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan).  
KOLDO NABASKUES jn. (Urkoa Kontsumitzaileen Elkarteko ordezkaria).  
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiak elkartearen ordezkaria).  
DIMAS RAMOS jn. (Kirol Elkarteak).

Ezin etorri izana adierazi dute NATIVIDAD MORALES andreak (Gizatiar elkarteko ordezkaria), AGURTZANE OLAIZ EGURROLA andreak (Eskola Agenda 21 eta Romoko ikastetxe publikoko irakaslea) eta JOSÉ GÓMEZ jaunak (Ingurumen gaitan ospe handia duen pertsona).

Getxon, 2016ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko zazpitan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**AZTERGAIEN ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin andreak arestian aipatutako Foroko kide batzuek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du, eta Txaro Arceniega andrea aurkeztu du Foroan, Basozaleak elkartearen ordezkaria.

**1.- 15.11.11n egindako Foroaren akta onartzea.**

Aho batez onartu da.

**2.- 15.12.09an egindako Foroaren akta onartzea.**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE  
(28.01.16)**

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:  
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:  
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:  
D<sup>a</sup>. ARANTZA CABEZA.

CONSULTORES MEDIOAMBIENTALES:  
D. JULEN REKONDO  
D<sup>a</sup> EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. CARLOS ARANA (Representante de Europak).  
D<sup>a</sup> TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak).  
D. JAVIER GALÁN (Presidente de Getxo Enpresa).  
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).  
D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola San Nikolas).  
D. JOSU INTXAURRAGA (Itxartu Taldea).  
D<sup>a</sup>. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).  
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Consumidores Urkoa)  
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak).  
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).

Excusan su no asistencia, D<sup>a</sup> NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar), D<sup>a</sup>. AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (Agenda Escolar 21 y profesora del Colegio Público de Romo), y D. JOSÉ GÓMEZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

En Getxo, a 28 de enero de 2016. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, D<sup>a</sup>. Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y da paso a la presentación de D<sup>a</sup> Txaro Arceniega que acude al Foro en representación de Basozaleak.

**1.- Aprobación del Acta del Foro celebrado el 11.11.15.**

Se aprueba por unanimidad.

**2.- Aprobación del Acta del Foro celebrado el 09.12.15.**

Pertsona batek bi aipamen egin ditu bi ideia idazteko moduari dagokionez. Hurrengo eraikuntzetan material porotsuak erabiltzeko proposamenaren arrazoia ez zen ura aurreztea, ura iragazteko eta isurtzeko eta akuiferoak elikatzeo aukera izatea baizik. Gainera, ikusi du Getxon Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana egitea oso garrantzitsua zela beretzat, eta agian, aktan hipotetikoki jaso dela. Aldaketak egin ondoren, akta aho batez onartu da.

### 3.- 2015-2019ko Ekintza Plana egitea.

Hasteko, 4. Lerro Estrategikoan adierazitako proposamenak landu dira: UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BERE HORRETAN MANTENTZEA.

Pertsona batek adierazi du kezkatuta dagoela abenduaren 28an Berangon izan zen suteagatik eta Getxoko faunari eta florari eragin dion moduagatik. Udalak baieztatu du Getxok ez duela baso masarik eta ez duela kalterik izan.

#### **ITSASERTZA BABESTEA ETA BERRESKURATZEA.**

- 2012-2015eko Tokiko Ekintza Planaren 2.3.2. ekintza garatu eta amaitu ondoren, pertsona batek proposatu du Aizkorriko hondartzako duna ekosistemak kontserbatzeko, berrizatzeko eta mantentzeko egindako ekintzekin aurrera jarraitzea.
- Beste pertsona batek adierazi du Azkorriko txilardia berreskuratzea garrantzitsua dela.
- Egoera eta bilakaera aztertzea. Jarraipenekin aurrera egitea; bilakaera serieak zenbait eta luzeagoak izan, orduan eta hobeto.
- Balio geologikoen (flysch, etab.) eta biologikoen berri ematea liburuxken, triptikoen, bisita gidatuen eta abarren bidez.
- Galeako txilardiak berreskuratzeko proiektuari eustea ingurumen hezkuntzarekin. Eremuan pertsonen joan-etorri handia izaten da, eta kartelak jarri daitezke in situ, eta jakinarazpenak egin daitezke irratian, gutun bidez, Getxoberrin, web orriaren bidez... . Ingurumen teknikariak, Jose Ateka jaunak, jakinarazi du laster aterako dela Galeako txilardiak berreskuratzeko kontratua.
- Apo lasterkaria babesten jarraitzea, azpiegiturei bere horretan eutsiz (espezia kaltebera da eta genetikoki desberdina da Arabakoarekiko; eboluzio desberdina du). Udalak asko egin du, baina beste administrazio batzuk ere egin daitezke kargu.
- Apo lasterkariaren populazioak monitorizatzea.
- Apo lasterkariaren panela aldatzea, hondatuta baitago.
- Apo lasterkariaren urmaelaren kordoa zabaltzea, espazio gehiago emateko eta atentzio gehiago emateko.

#### **BOLUE ETA UR EKOSISTEMAK BABESTEA, HOBETZEA ETA SUSTATZEA.**

- Bolueko egungo egoerari buruzko azterketa bat egitea.
- Lehendik zeuden, egun dauden eta egon daitezkeen ur ekosistemen inbentarioa egitea.

Una persona hace dos puntualizaciones respecto a la redacción de dos ideas. La razón por la que proponía la utilización de materiales porosos en próximas construcciones no era para ahorrar agua sino para permitir que el agua se filtre o fluya y que alimente los acuíferos. Además, observa que la realización del PAES en Getxo era para él muy importante y que tal vez en el acta había quedado en términos hipotéticos. Así, una vez realizadas las modificaciones, se aprueba el acta por unanimidad.

### 3.- Elaboración del Plan de Acción 2015-2019

Se comienza con las propuestas referidas a la LE4: PRESERVAR LOS VALORES NATURALES, LA BIODIVERSIDAD Y EL PAISAJE DEL MUNICIPIO.

Una persona manifiesta su preocupación por el incendio acontecido el pasado 28 de diciembre en Berango y cómo ha afectado a la fauna y flora de Getxo. El Ayuntamiento confirma que Getxo no tiene masa forestal y que no se ha visto afectado.

#### **PROTEGER Y RECUPERAR EL LITORAL.**

- Una vez desarrollada y finalizada la acción 2.3.2. del Plan de Acción Local 2012-2015, una persona propone dar seguimiento a las acciones realizadas de conservación, restauración y mantenimiento de los ecosistemas dunares de la playa de Azkorri.
- Otra persona señala la importancia de recuperar el brezal de Azkorri.
- Estudiar la situación y evolución. Proseguir con los seguimientos, las series de evolución cuanto más largas mejor.
- Dar a conocer los valores geológicos (flysch, etc.) y biológicos a través de folletos, trípticos, visitas guiadas, etc.
- Mantener el proyecto de recuperación de los brezales de la Galea con educación ambiental. La zona es muy transitada y se podrían poner carteles in situ, radio, buzoneo, Getxoberri, informar en la web.. El técnico de Medio Ambiente, D. Jose Ateka, informa de que se va a sacar en breve a contratación la recuperación de los brezales de la Galea.
- Continuar protegiendo al sapo corredor manteniendo las infraestructuras (es una especie vulnerable y genéticamente diferente del de Álava, es una evolución diferente). El Ayuntamiento ha hecho mucho pero otras administraciones también podrían hacerse cargo.
- Monitorizar las poblaciones del sapo corredor.
- Sustituir el panel del sapo corredor que se encuentra deteriorado.
- Ampliar el cordón de la charca del sapo corredor para darle más espacio y llamar más la atención

#### **PROTECCIÓN, MEJORA Y PROMOCIÓN DE BOLUE Y DE LOS ECOSISTEMAS ACUÁTICOS.**

- Realizar un estudio sobre la situación actual en Bolue
- Inventario de ecosistemas acuáticos preexistentes,

- Kudeaketaren eta mantentze lanen arloko egutegi bat osatzea eta hezeguneko eskumenak banatzea, indarrak batzeko.
- Espezie adierazleen (apoarmatuak, eraztun jartzeak...) errolda egiten jarraitzea.
- Oinezkoentzako kartel eta azpiegitura berriak egitea.
- Bolue Bolueko haranera zabaltzera, haran osoak balio naturala izan dezan.
- Hezegune berriak gaitzea kalteberenak diren anfibioentzat.
- Argitalpenak egitea paperean, triptikoetan, gidetan, web orrietan, etab.
- Ingurumen hezkuntza.
- Udalak duela hainbat urte egindako inbentarioa eguneratzea eta digitalizatzea, eta web orrian zabaltzea.
- 2013an itxi zen Ingurumen Gela berriro ere martxan jartzeko aukera aztertzea, babes publiko-pribatuak bilatuz.
- Urmaelen ikerketa bat egitea: Gogoratzen al zara Getxon non ikusi dituzun igelak? Jolasetaren azpialdea, adibidez, zingiratsua zen, eta pertsona batek han mingorriak ikusi izana gogoratzen du.
- Boluntariotza bultzatzea, eta boluntario horiek prestakuntzarekin eta informazioarekin bisita programatuak edo beste jarduera batzuk egitea. Adierazi behar da ingurumen hezkuntzan lan egiten duten profesionalak zerbait izan dezaketela esateko gaiari dagokionez.

#### **INTERESDUN NATURGUNEAK BABESTEA ETA BERRESKURATZEA.**

- Proposatu da interesdun guneen inbentario bat egitea eta zer egoeratan dauden aztertzea: zeri deitzen diogu interesdun naturgune? Zein dira? Zergatik?
- Espezie adierazleak aztertzea; horien presentziak, absentiak edo abundantziak ingurumen baldintza zehatz bat islatzen du.
- Hobetzeko aukerei buruzko ikerketa bat egitea.
- Jendea erakartzeko dibulgazioa egitea.
- Guneen jarraipena egitea, pertsonen erakarpena hondamenean amaitu ez dadin.
- Landare inbaditzaileak kontrolatzea, hala nola panpalezkak (baita Txurrukako kaian eta Bizkaiko Zubian ere) eta spartina.

#### **KORRIDORE EKOLOGIKOA**

Pertsona batek korridore ekologikoari buruzko programa oso bat sortzea proposatu du. Ildo horretan, honako jarduera hauek proposatu dira:

- Korridore ekologikoa zehaztea. Zentzu horretan, zenbait zalantza eta nahastea daude esan nahi duenari buruz.
- Korridore batek ez dakar berarekin ibiltzeko modukoa izatea; aldiz, konektibitate baten bidez espazioak lotu nahi ditu paisaiekin, ekosistemekin eta habitatekin, aniztasun biologikoari eta prozesu ekologikoei bere horretan eusteko. Horrela, migrazioa errazten da, bai eta flora eta fauna espezie basatien sakabanatzea ere.

actuales y potenciales

- Crear un calendario de gestión y mantenimiento y distribuir las competencias del humedal para aunar fuerzas.
- Seguir con el censo de las especies indicadoras (galápagos, anillamiento)
- Nuevos carteles e infraestructura para el paseante.
- Extender Bolue al Valle de Bolue para que el valle entero sea valor natural.
- Habilitación de nuevas zonas húmedas para los anfibios que son los más vulnerables
- Publicaciones en papel, trípticos, guías, web, etc.
- Educación ambiental
- Actualización y digitalización del inventario realizado por el Ayuntamiento hace años y difundirlo en la web.
- Estudiar la posibilidad de volver a poner en marcha el Aula Medioambiental que se cerró en 2013 buscando patrocinios públicoprivados.
- Realizar un estudio de charcas: ¿Dónde recuerdas haber visto ranas en Getxo? La parte de abajo de Jolaseta por ejemplo era toda pantanosa y una persona recuerda ir a observar allí a las mingorras.
- Potenciación del voluntariado que con formación e información realicen visitas programadas u otras actividades. Cabe señalar que los profesionales que trabajan en educación ambiental quizás tengan algo que decir al respecto.

#### **PROTECCIÓN Y RECUPERACIÓN DE ZONAS DE INTERÉS NATURALÍSTICO**

- Se propone hacer un inventario de las zonas de interés y estudiar en qué estado se encuentran: ¿a qué llamamos zona de interés naturalístico?, ¿cuáles son? ¿por qué?
- Estudio de las especies indicadoras cuya presencia, ausencia o abundancia refleja una condición ambiental específica
- Estudio de las posibilidades de mejora
- Divulgación para atraer a la gente
- Seguimiento de las zonas para que la atracción de las personas no acabe en destrozo.
- Control de las plantas invasoras como las cortadeiras (también en el Muelle de ChurrucaPuente Colgante) y las espartinas.

#### **CORREDOR ECOLÓGICO**

Una persona propone la creación de un programa entero que verse sobre el corredor ecológico. En este sentido se proponen las actuaciones siguientes:

- Definición del corredor ecológico. En este sentido, hay ciertas dudas y confusión respecto a lo que significa. Un corredor no implica que sea transitable por personas si no que pretende unir a través de una conectividad, espacios con paisajes, ecosistemas y hábitats, que faciliten el mantenimiento de la diversidad biológica y los procesos ecológicos, facilitando la migración, y la dispersión de especies de flora y fauna silvestres. Desde el Ayuntamiento se

Udalak azaldu du HAPO berrikusteko zirriborroan zehazten dela Getxoko Korridore Ekologikoa, kostaldeko eremua eta hezegunearen behealdeko eremua lotzen dituen eremu gisa; ibaiaren paraleloan dagoen zati osoa izango litzateke, paseatzeko eremuraino 15-20 metro utziz. Zatiak konplexuena Kandelu eta kostaldea konektatzen dituen da.

- HAPOren ekologiaren eta ingurumenaren aholkularitzako proposamenei jarraipena egitea, ziur sortuko baitira.
- Eremu horretan informaziozko kartelak jartzea.
- Aurretik eta ondoren faunaren inbentarioa egitea adierazleekin, bilakaera neurtzea ahalbidetzeko.
- Erakargarritasunak sortzea (urmaelak, putzuak, lahardiak, txilardiak...).
- Dibulgazio kanpainak egitea.
- Korridoreak hainbat pasaia izan ditzake: hiri ingurukoagoak diren eremuak, urmaelak, behatokia.
- Urtean bitan egin ahal izango dira mantentze lanak; soilduz, besteak beste.
- Ikastetxeek txango ekologikoak egitea korridorera/behatokietara.

explica que en el Borrador de la Revisión del PGOU se define el Corredor Ecológico de Getxo como el área que une la zona costera con la zona baja del humedal, que consistiría en toda la parte paralela al río dejando entre 15-20 metros hasta la zona de paseo. La parte más complicada es la que conecta Kandelu con la costa.

- Seguimiento de las propuestas de la asesoría ecológica y medioambiental del PGOU que seguro que surgen.
- Carteles informativos en la zona.
- Inventario faunístico previo y posterior con indicadores que nos permitan medir la evolución
- Creación de atractivos (charcas, pozos, zarzales, brezales,..)
- Campañas de divulgación
- El corredor puede tener diferentes paisajes: zonas más periurbanas, charcas, observatorio.
- Se podría realizar mantenimiento 2 veces al año incluso desbrozando.
- Salidas ecológicas de los centros escolares al corredor/ observatorios.

4. Ileroko ekarpenak amaitu ondoren, saioak jarraitu egin du 3. Lerro Estrategikoari buruzko proposamenekin: HIRIGINTZA ANTOLAMENDU IRAUNKORRERAN AURRERA EGITEA.

Una vez finalizadas las aportaciones de la línea 3, la sesión continúa con las propuestas referidas a la LE3: AVANZAR EN LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA SOSTENIBLE.

#### **ETXEBIZITZA ESKURATZEA ETA BIZILEKU KALITATEA**

- Gazteentzako gizarte alokairua sustatzea.
- Udalak azaldu du Ituribarrin 3 lursail dituela eta alokairuko gizarte etxebizitza batzuk eraikitzeke sustatzaile bihur daitekeela hor, baina ez dagoela krediturik.

#### **ACCESO A LA VIVIENDA Y CALIDAD RESIDENCIAL.**

- Promover el alquiler social para jóvenes
- El Ayuntamiento explica que en Ituribarri tiene 3 parcelas y que podría convertirse en promotor aquí de construcción de vivienda social en alquiler pero no hay crédito.

#### **BERDEGUNEAK GARATZEA ETA HOBETZEA**

- Terrazetan eta estalkietan lorategien ezarpena sustatzea. Ildo horretan, balkoi eta terrazetako lehiaketak sortzea proposatu da, edo loreen eta landareen landaketa sustatuko duen kanpainaren bat egitea.
- San Nikolas bezalako asfaltatutako plazetatik urrundu beharko ginateke. Zentzu horretan aipatu da azpian garajeak daudenez ez dagoela nahikoa lodierarik zuhaitzak landatzeko. Udan berdeguneen bidez tenperatura jaistea lortzeko dagoenez, pertsona batek ziurtatu du frogatuta dagoela Getxo bezalako kostaldeko eremuetan ez dela gradurik jaisten zuhaitz/landare gehiago izategatik.
- Getxo osoan pixaleku gehiago jartzea, eta bereziki, hiriguneetan, Galean eta Txurruka kaian.
- Parkeetan erakargarritasunak sortzea: habia kutzak, urmaelak, intsektuentzako belar altuagoa, dena parkeetako kartelekin eta mapekin seinaleztatzea.
- Web orria eguneratzea parkeei buruzko informazioarekin (lore zaintza dago eguneratuena web orrian).
- Euria egiten duenean lorategi espazioak erregadiatzen ez direla kontrolatzea. Ildo horretan, Udalak ur

#### **DESARROLLO Y MEJORA DE ZONAS VERDES**

- Fomentar el ajardinamiento de terrazas y cubiertas. En este sentido se propone crear concursos de balcones y terrazas o realizar alguna campaña que fomente la plantación de flores y plantas.
- Deberíamos huir de las plazas asfaltadas como la de San Nikolas. En este sentido se comenta que al haber garajes debajo, no hay suficiente espesor para plantar árboles. Con respecto a si se consigue bajar la temperatura en verano a través de las zonas verdes, una persona asegura que está demostrado que en las zonas costeras como Getxo, no bajan los grados por contar con más árboles/ plantas.
- Poner más urinarios por todo Getxo y especialmente en los centros urbanos, en la Galea y en el Muelle de Churruca.
- Crear atractivos en los parques: cajas nido, charcas, hierba más alta para insectos, señalarlo todo con letreros y mapas de los parques.
- Actualizar la web con información sobre los parques (la jardinería es lo que más actualizado está en la web).
- Controlar que no se rieguen las zonas ajardinadas cuando llueve. En este sentido el Ayuntamiento está

kontagailu espezifikokoak ezartzen ari da erregadiorako, bai eta higrometroak ere, ur faltak antzemateko.

instalando contadores específicos de agua para riego e higrómetros para detectar la falta de agua.

#### **MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATZEA.**

- Bidegorrien erabilera bultzatzea; jende gehiena errepidetik edo espaloitik joaten da.
- Ziklistak bidegorrian zergatik ibiltzen ez diren aztertzea.
- Bidegorrietan eta espaloietan abiadura errespetatzeko hezkuntza (Telletxe belodromo bat dirudi).
- Arau haustek egiten dituzten ziklistei isunak jartzeko/zigortzeko aukera aztertzea.
- Eskolarako bide seguruak bultzatzea, ikastetxeetara bizikletaz joan ahal izateko.
- Udala babesten ari da mota horretako bide seguruak bultzatzeko diru laguntzak dituzten ikastetxeak eta gurasoen elkarteak.
- Gernikakoa bezalako mugimendu parte hartzaileak sustatzea.
- Eremu partekatutak ez dira erakargarriak ziklistentzat, ez direlako seguruak. Partekatutako eremuak berriz diseinatzea proposatu da: eremu okerrak, galtzadaren alde batean eta bestean txandaka aparkatutako autoekin; uhartetxoak; jardinerak... Hori guztia autoen zirkulazio abiadura murrizteko helburuarekin.
- Ikastetxe, Fadura, institutu eta abarretara bizikletaz joateko bidea aztertzea.
- GetxoBiziren erabilerearen jarraipena egitea, baita bizikleta pribatuetarako bizikleten aparkalekuarena ere.
- Getxon APARKA sistema berriak bizikleten mailegua eskaintzen du, bizikleta pribatuen aparkamendu seguruarekin. Aparkatzeko iraupen egokia aztertu beharko litzateke (badirudi ordubete ez dela nahikoa).
- Bidegorrietan, espaloietan eta errepidean ibilgailu gurgildunen erabilerari buruzko araudia argitzea eta zabaltzea: bizikletak, patinak, patineteak, gurgil aulkiak, gurgil bakarreko motorrak, monoziklo elektrikoak...
- Abiadura mugaren seinaleztapena hobetzea, eta lurrean adieraztea, gogorazteko.

#### **IRISGARRITASUNERANTZ AURRERA EGITEA.**

- Pertsona batek adierazi du kezkatuta dagoela Fadurako instalazioetarako (pilotalekuak, padela, tenisa, errugbia...) irisgarritasunagatik Gobela ibaiaren lanek irauten duten bitartean. Urtebetez gutxi gorabehera, oinezkoentzako igarobide baten bidez iritsi ahal izango da, baina ezingo da autoz joan. Aldirietako aparkalekuak gaitzea proposatu da, eta handik lotura baliabideak jartzea.

Koldo Nabaskues jaunak ezin izan zuen aurreko forora joan, eta 5. lerroari (INGURUMEN KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILERA IRAUNKORRA) buruzko zenbait ekarpen egin ditu. Zehazki, energia eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak bultzatzeko ekarpenak egin ditu:

- Energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea eta sustatzea, eta horretarako, ezarpen politika bat zehaztea.

#### **IMPULSAR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE.**

- Fomentar el uso de los bidegorris, la mayoría de la gente va por la carretera o acera
- Estudiar por qué el ciclista no va por el bidegorri
- Educación para respetar la velocidad en bidegorris y aceras (Telletxe parece un velódromo)
- Estudiar la posibilidad de multar/ penalizar a los ciclistas que cometan infracciones.
- Impulsar los caminos escolares seguros para que se pueda acceder a los centros escolares en bicicleta.
- El Ayuntamiento apoyando a los centros y las asociaciones de padres que cuentan con subvenciones para promover este tipo de caminos seguros.
- Movimiento participativo como el de Gernika
- Las zonas compartidas no son atractivas para los ciclistas porque no son seguras. Se propone el rediseño de las zonas compartidas: espacios curvos con coches aparcados en la calzada a un lado y a otro alternativamente, islotes, jardineras, etc. con el objetivo de reducir la velocidad de circulación de los coches.
- Revisión del acceso por bicicleta a los centros escolares, Fadura, institutos, etc.
- Seguimiento sobre el uso de GetxoBizi y también de los aparcabici para bicicletas privadas.
- El nuevo sistema APARKA en Getxo, integra el préstamo de bicicletas con el aparcamiento seguro de bicis privadas. Habría que estudiar la duración adecuada para el aparcamiento (1 hora parece ser insuficiente).
- Aclarar y difundir el reglamento sobre el uso de los vehículos de ruedas en bidegorris, aceras y carretera: bicicletas, patines, patinetes, sillas de ruedas, motos de una rueda, monociclos eléctricos, etc.
- Mejorar la señalización de la limitación de velocidad indicándola en el suelo para que sirva de recordatorio.

#### **AVANZAR HACIA LA ACCESIBILIDAD**

- Una persona manifiesta su preocupación para acceder a las instalaciones de Fadura (frontones, pádel, tenis, rugby, etc.) durante las obras del río Gobela. Durante un año aproximadamente, se podrá acceder a través de una pasarela peatonal pero no en coche. Se propone la habilitación de aparcamientos disuasorios con lanzaderas.

Koldo Nabaskues, que no pudo acudir al anterior Foro realiza algunas aportaciones para la línea 5 CALIDAD AMBIENTAL Y UTILIZACIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS y en concreto para mejorar la eficiencia energética e impulsar las energías renovables:

- Potenciar y promover la instalación de energías renovables definiendo una política de implantación.
- Estudiar el mapa de vientos y mapa de sol en Getxo.

- Getxoko haizeen mapa eta eguzkiaren mapa aztertzea.
- Kontsumo baxuko argiak jarri zirenetik egiten ari garen aurrezpenaren balorazioa egitea.
- Gaueko argien bizitasuna jaistea.
- Proposatu da hurrengo fororako edo hurrengorako aurkezpen bat egitea Goienerren eskutik; saio horretan, energia fakturari eta dauden aukerei buruz hitz egin ahal izango da. Goiener energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko proiektu kooperatibo bat da. Egungo energia eredu aldatu nahi duten milaka pertsona biltzen ditu, eta % 100 berriztagarria den energia eredu bat lortzeko lan egiten du.
- Realizar una valoración del ahorro que está suponiendo el cambio de las luminarias a bajo consumo
- Bajar la intensidad del alumbrado de noche.
- Se propone una presentación por parte de Goiener para el próximo Foro o el siguiente en el que se podría hablar sobre la factura energética y las diferentes posibilidades. Goiener es un proyecto cooperativo de generación y consumo de energía renovable que reúne a miles de personas con el deseo de cambiar el modelo energético actual y trabajar para alcanzar un modelo 100% renovable.

Bestalde, Udalak jakinarazi du Udalbatzan onartu dela Udalaren eskutik botilako uraren kontsumoa saihestea. Gainera, Ingurumeneko Tokiko Foroari eskatu dio kanpaina bat abian jartzeko txorrotako uraren kontsumoa bultzatzeko udalerriko tabernetan eta jatetxeetan. Foroak atseginez onartu du zeregina.

#### **4. Julen Rekondo jaunaren agurra.**

Julen Rekondok, Foroaren dinamizatzailerak, agur esan du, eta adierazi du erretiratzeko ordua duela; gainera, arrazoi pertsonalak argudiatu ditu. Eskerrak eman dizkie Foroko kide guztiei, urteetan izan duten prestutasun onagatik eta sortzen joan den adiskidetasunagatik. Hemendik aurrera, Eugenia Atin andreak ordezkatzeko du Julen Rekondo Foroa dinamizatzeko lanetan.

Foroak adierazi du Juleni agur esateko bazkari bat antolatu nahi duela.

Bilera amaitutzat eman da Getxon, 21:15ean.

Se comunica además por parte del Ayuntamiento que se ha aprobado en Pleno que se va a evitar el consumo de agua embotellada por parte del Ayuntamiento y además se solicita al Foro Local de Medio Ambiente que ponga en marcha una campaña para promover el consumo de agua del grifo en los bares y restaurantes del municipio. El Foro acepta gustoso esta tarea.

#### **4. Despedida de Julen Rekondo**

Julen Rekondo, el dinamizador del Foro, se despide comentando que ha llegado ya la hora de su jubilación y alega además motivos personales. Agradece a todos los miembros del Foro la buena disposición a lo largo de los años y la amistad que se ha ido forjando. A partir de ahora, Eugenia Atin relevará a Julen Rekondo en las tareas de dinamización del Foro.

El Foro manifiesta el deseo de organizar una comida de despedida para Julen.

En Getxo, a las 21,15 horas se da por finalizada la reunión.